



Azpeitiko Udala

GAIA: AZPEITIKO UDALAREN ETA IRAURGI IKASTETXEAREN ARTEKO HITZARMENA, JOSE ARTETXE KALEA, 4KO ERAIKINEAN EMATEN DEN HEZKUNTZA JARDUERA LAGUNTZEKO.

Jose Artetxe kalea, 4ko eraikinean ematen den hezkuntza jarduera laguntzeko Azpeitiko Udalaren eta Iraurgi Ikastetxearen arteko hitzarmenari dagokionez, honako aurrekariak jaso behar dira:

Azpeitiko Udalak eta Iraurgi Ikastetxe pribatuaren titularra den Donostiako Gotzaindegiak **2016ko ekainaren 17an** udalaren jabetzakoa den Jose Artetxe kalea, 4an dagoen "Jesusen Bihotzaren ikastetxea" eraikinean haur hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa eta lanbide heziketa jarduerak emateko emakida hitzarmen bat sinatu zuten.

Emakida hitzarmen horretan emakidaren ezaugarriak eta baldintzak jaso ziren, eraikinean egin beharreko eraberritze lanak, eta baita emakidadunaren eskubideak eta betebeharrak ere. Beste batzuen artean, Donostiako gotzaindegiak higiezinari loturiko gastu arrunt hauek bere gain hartuko zituen:

- a) Ur, argi eta berogailuaren kontsumoak.
- b) Eraikinaren mantentze lanak eta garbiketa (hor sartzen dira barnealdea margotzea, kristalak konpontzea, iturgintzako eta elektrizitateko lanak eta igogailuaren mantentze lanak).

Ondoren, 2016-2019 Dirulaguntza Plan Estrategikoaren baitan, Udalbatzak **2018ko maiatzaren 15ean** egindako bilkuran diru-laguntza zuzen bat onartzea erabaki zuen **Jose Artetxe kalea, 4an** dagoen eraikinaren mantenurako (Udalerriko ikastetxeetara joaten diren ikasleen baldintzak babestea helburu izanik, herriko ikastetxe bakoitzeko instalazio eta zerbitzuak berdindu nahi ziren). Laguntza honek urte-anitzeko izaera du (4 urte),

Udalak 2020-2022 Dirulaguntza-Plan Estrategikoan berriro ere urte-anitzeko laguntza zuzen hau aurreikusi du, Laguntzaren helburu estrategikoa udalerrian dauden ikastetxeetan hezkuntza-eskaintza sustatzea da eta instalazioen kalitatea ziurtatzea da. Horretarako, Udalerriko itunpeko ikastetxeekin Udala lankidetzan arituko da instalazioak mantentzeko, udal-ikastetxeetara joaten diren udalerriko ikasleen baldintzak babesteko eta ikastetxe bakoitzeko instalazioak eta zerbitzuak parekatuz.

Hitzarmenaren oinarri izan zen hezkuntza mailako eskubideak bermatzeko, eta aldi berean herri mailan hezkuntzaren kalitatea sustatzeko helburuak interes orokortzat hartuta, Udalak urteetan jarraitu du udalerrian hezkuntza hobetzeko proiektu errotu bat bultzatzen, eta urteak darama herriko



Azpeitiko Udala

ikastetxeei laguntzen, ikasleen baldintzak zainduz eta ziurtatuz, besteak beste ikastetxe bakoitzaren instalazioak eta zerbitzuak parekatuz.

Lerro honetako helburu espezifikoa da itunpeko ikastetxeen ohiko funtzionamenduari eta jarduerari ekonomikoki laguntzea eta instalazioen kalitatea zaintzea. Udalerrian hezkuntza hobetzeko proiektu errotu bat bultzatzen urteak daramatzaten ikastetxeei laguntzea da asmoa, baita ikastetxe horietan ikasten duten ikasleen baldintzak zaintzea eta ziurtatzea ere, ikastetxe bakoitzaren instalazioak eta zerbitzuak parekatuz.

Hezkuntza politika sustatzaile bat eskaintzea nahi da Azpeitiko herrian, eta gainontzeko administrazioek hezkuntza politika mailan dituzten eskumenak osatzea, hezkuntza arautzen duen maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezarritako printzipioak eta helburuak bermatzeko.

Dirulaguntza honetan araudi ezargarriak jasotzen duen publizitate eta konkurrentzia printzipioak ez dira ezarriko, eta laguntza zuzenean emango da, diru-laguntzei buruzko azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 a) artikulua dioena kontuan izanik. Izan ere, Udalaren aurrekontuan espresuki jaso da laguntza zuzena emateko legeak eskatutako baldintzak.

Laguntza emateko aurrekontuaren partida: 1.0300.481.323.50.01 transferentzia arruntak, Iraurgi Ikastetxea.

Laguntza ematea Udaltzaren hitzarmena onartzeko hartutako akordioaren bidez onartuko da. Edozein kasutan onuradunak beharrezkoa izango du dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikulua eta honekin bat datorren gainontzeko araudiak jasotako baldintzak egiaztatzea udalaren sarrera erregistroan. Baldintza horiek betetzea ezinbestekoa izango da ordainketa egiteko.

Udalak onartutako laguntzak legeko publizitatea izango du. Hitzarmen honen babesean emandako dirulaguntza udalaren web orrian argitaratuko da, eta baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere. Horrez gain Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalean (DDN) ere argitaratuko da, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 18. eta 20. artikuluen arabera.

Eta kontuan izanik aldekoa dela Hezkuntza alorreko batzordeak emandako irizpena, Udaltzaren, aho batez eta beti ere hura osatzen duten kideen legeko kopuruaren gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, ONARTU DU Azpeitiko Iraurgi Ikastetxeari dirulaguntza zuzen bat onartzea **Jose Artetxe kalea, 4an** dagoen eraikinaren mantenurako (Udalerriko ikastetxeetara joaten diren ikasleen baldintzak babestea helburu izanik, herriko ikastetxe bakoitzeko instalazio eta zerbitzuak berdindu nahi dira).



Azpeitiko Udala

Laguntza honek urte-anitzeko izaera du (4 urte), 2022ko urtarrilaren 1etik hasita. Urtez urteko kopurua gehienez 118.000€-raino izango da.

Aurrekontuaren gaitako organo eskudunak behar diren kredituak erreserbatuko ditu eragina izango duten etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan (21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa).

Laguntzaren xedea, ezaugarriak eta baldintzak Udalak onartu duen honako hitzarmen honetan jaso dira.

Alkate-lehendakaria izendatzea Udalaren izenean hitzarmena sinatzeko eta bertan jasotako eginbeharrak betetzeko.

**AZPEITIKO UDALAREN ETA IRAURGI IKASTETXEA-
REN ARTEKO HITZARMENA JOSE ARTETXE KALEA, 4KO ERAI-
KINEAN EMATEN DEN HEZKUNTZA JARDUERA LAGUNTZEKO.**

Azpeitian, 2022ko otsailaren 3an

ELKARTUTAKOAK

Alde batetik, **Nagore Alkorta Elorza** (Azpeitiko alkate-udalburua); NA zk. 72.471.832-M duenak

Bestetik, **Francisco Javier Palmero Chao**; NA zk. 72.485.657-F duenak

ORDEZKARITZA

Lehenengoak **AZPEITIKO UDAL**Aren izenean eta haren ordezkari gisa dihardu.

Bigarrenek, **IRAURGI IKASTETXEKO** ordezkari gisa, **I.E.Z. R2000547F** eta ikastetxearen egoitza honakoa izanik: Jose Artetxe kalea, 4.

Ordezkaritza hori ondoren zehazten den eskrituraren bitartez emana du:

- **NOTARIOA:** FRANCISCO JAVIER OÑATE CUADRADOS
- **ESKRITURAREN LEKUA:** DONOSTIA
- **ESKRITURAREN DATA:** 2014-09-10
- **PROKOLLO ZK.:** 12671676



Azpeitiko Udala

AURREKARIAK

Azpeitiko Udalak eta Iraurgi Ikastetxe pribatuaren titularra den Donostiako Gotzaindegiak **2016ko ekainaren 17an** udalaren jabetzakoa den Jose Artetxe kalea, 4an dagoen “Jesusen Bihotzaren ikastetxea” eraikinean haur hezkuntza, derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa eta lanbide heziketa jarduerak emateko emakida hitzarmen bat sinatu zuten.

Emakida hitzarmen horretan emakidaren ezaugarriak eta baldintzak jaso ziren, eraikinean egin beharreko eraberritze lanak, eta baita emakidadunaren eskubideak eta betebeharrak ere. Beste batzuen artean, Donostiako gotzaindegiak higiezinari loturiko gastu arrunt hauek bere gain hartuko zituen:

- a) Ur, argi eta berogailuaren kontsumoak.
- b) Eraikinaren mantentze lanak eta garbiketa (hor sartzen dira barnealdea margotzea, kristalak konpontzea, iturgintzako eta elektrizitateko lanak eta igogailuaren mantentze lanak).

Ondoren, 2016-2019 Dirulaguntza Plan Estrategikoaren baitan, Udalbatzak **2018ko maiatzaren 15ean** egindako bilkuran diru-laguntza zuzen bat onartzea erabaki zuen **Jose Artetxe kalea, 4an** dagoen eraikinaren mantenurako (Udalerriko ikastetxeetara joaten diren ikasleen baldintzak babestea helburu izanik, herriko ikastetxe bakoitzeko instalazio eta zerbitzuak berdindu nahi ziren). Laguntza honek urte-anitzeko izaera du (4 urte),

Udalak 2020-2022 Dirulaguntza-Plan Estrategikoan berriro ere urte-anitzeko laguntza zuzen hau aurreikusi du, Laguntzaren helburu estrategikoa udalerrian dauden ikastetxeetan hezkuntza-eskaintza sustatzea da eta instalazioen kalitatea ziurtatzea da. Horretarako, Udalerriko itunpeko ikastetxeekin Udala lankidetzan arituko da instalazioak mantentzeko, udal-ikastetxeetara joaten diren udalerriko ikasleen baldintzak babesteko eta ikastetxe bakoitzeko instalazioak eta zerbitzuak parekatuz.

Hitzarmenaren oinarri izan zen hezkuntza mailako eskubideak bermatzeko, eta aldi berean herri mailan hezkuntzaren kalitatea sustatzeko helburuak interes orokortzat hartuta, Udalak urteetan jarraitu du udalerrian hezkuntza hobetzeko proiektu errotu bat bultzatzen, eta urteak darama herriko ikastetxeei laguntzen, ikasleen baldintzak zainduz eta ziurtatuz, besteak beste ikastetxe bakoitzaren instalazioak eta zerbitzuak parekatuz.

Lerro honetako helburu espezifikoa da itunpeko ikastetxeen ohiko funtzionamenduari eta jarduerari ekonomikoki laguntzea eta instalazioen kalitatea zaintzea. Udalerrian hezkuntza hobetzeko proiektu errotu bat bultzatzen urteak



Azpeitiko Udala

daramatzaten ikastetxeei laguntzea da asmoa, baita ikastetxe horietan ikasten duten ikasleen baldintzak zaintzea eta ziurtatzea ere, ikastetxe bakoitzaren instalazioak eta zerbitzuak parekatuz.

Hezkuntza politika sustatzaile bat eskaintzea nahi da Azpeitiko herrian, eta gainontzeko administrazioek hezkuntza politika mailan dituzten eskumenak osatzea, hezkuntza arautzen duen maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezarritako printzipioak eta helburuak bermatzeko.

Bi aldeak bat datozenez lankidetza horren baldintzetan, urte anitzeko dirulaguntzaren oinarri izango den hitzarmena sinatzen dute ondorengo klausulen arabera:

LAGUNTZAREN KLAUSULAK

1.- Helburua:

Azpeitiko udalak Iraurgi ikastetxeari dirulaguntza bat emango dio Jose Artetxe kalea, 4an dagoen “Jesusen Bihotzaren ikastetxea” eraikinaren mantenurako (Udalerriko ikastetxeetara joaten diren ikasleen baldintzak babestea helburu izanik, herriko ikastetxe bakoitzeko instalazio eta zerbitzuak berdindu nahi dira).

- a) Ur, argi eta berogailuaren kontsumoak.
- b) Eraikinaren mantentzea.
- c) Eraikinaren garbiketa.

2.- Dirulaguntzari ezargarri zaion erregimen juridikoa.

Dagokigun dirulaguntza hitzarmen honen bidez arautuko da, eta baita dirulaguntzei buruzko azaoaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Lege hau garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan eta Udalak 2012ko apirilaren 3an onartutako diru-laguntzak emateko ordenantza arautzailean ere (GAO 2012ko maiatzaren 29an 101. zk). Horrez gain, udalak 2016ko ekainaren 16an sinatu zuen emakida kontratua ere kontuan hartuko da, laguntzaren oinarri ere badelako.

3.- Laguntzaren prozedura:

Dirulaguntza honetan araudi ezargarriak jasotzen duen publizitate eta konkurrentzia printzipioak ez dira ezarriko, eta laguntza zuzenean emango da, diru-laguntzei buruzko azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorreko 22.2 a) artikulua dioena kontuan izanik. Izan ere, Udalaren aurrekontuan espresuki jaso da laguntza zuzena emateko legeak eskatutako baldintzak.



Azpeitiko Udala

Laguntza ematea Udalbatzak hitzarmena onartzeko hartutako akordioaren bidez onartuko da. Edozein kasutan onuradunak beharrezkoa izango du dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikulua eta honekin bat datorren gainontzeko araudiak jasotako baldintzak egiaztatzea udalaren sarrera erregistroan. Baldintza horiek betetzea ezinbestekoa izango da ordainketa egiteko.

Udalak onartutako laguntzak legeko publizitatea izango du. Hitzarmen honen babesean emandako dirulaguntza udalaren web orrian argitaratuko da, eta baita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere. Horrez gain Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalean (DDN) ere argitaratuko da, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 18. eta 20. artikuluen arabera.

Hitzarmena onartzearen akordioak bide administratiboa amaitzen du, eta honen aurka legeko errekurtsoak aurkeztea izango da: 1. Administrazioarekiko **AUZI ERREKURTSOA** (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiari dagokion Administrazioarekiko-auzien Epaitegian), edota aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa jarri aurretik, aukerako **ERABAKIA BERRAZTERTZEKO-ERREKURTSOA**.

4.- Onuraduna.

Jose Artetxe kalea, 4an dagoen “Jesusen Bihotzaren ikastetxea” eraikinean ematen den hezkuntza jardueraren titularra den **Iraurgi ikastetxea** izango da laguntzaren onuraduna.

5.- Laguntzaren epealdia eta aurrekontu kreditua.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra garatzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 57. artikuluan oinarrituta, laguntza honek urte-anitzeko izaera du (4 urte), 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Laguntza, 2022ko ekitaldirako udal aurrekontuko 1.0300.481.323.50.01 partidaren kargura emango da, gehienez 118.000 €-raino urteko. Derrigorrezkoa izango da nahiko kreditu izatea datozen urteetan gastua baimendu ahal izateko.

6.- Justifikazioa eta laguntzaren ordainketa.

Dirulaguntza hiru hilabetez behin ordainduko da, baina aurretik, jarduera egin izanaren justifikazioa aurkeztu beharko da:



Azpeitiko Udala

- a) Eskaera.
- b) Zerga obligazioa eta Gizarte Segurantzakoak egunean daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak, edota, informazio hori jasotzeko Udalari baimena ematen zaion dokumentua.
- b) Gastuen memoria eta ordain egiazttagiriak, ikastetxearen idazkariaren ziurtagiriaren bidez.
- c) Urteko diru-sarreraren eta gastuaren balantze ekonomikoa (urtea amaitu ondoren hurrengo urteko lehen hiru hilabeteko eskaerarekin batera.

Dokumentazioa aurkeztu eta gehienez hilabeteko epean laguntzaren ordainketa efektiboa egingo da.

7.- Gastu hautagarriak

Hitzarmen honen 1.puntuan zehaztutako helburuetatik eratorritako gastuak:

- Ur, argi eta berogailuaren kontsumoen fakturak
- Eraikinaren mantenuari lotutakoak (langileen kostuak eta mantenurako materiala)
- Eraikinaren garbiketari lotutakoak (langileen kostuak eta garbiketako materiala)

8.- Laguntzaren bateragarritasuna eta bateraezintasuna.

Dirulaguntza hau bateragarria da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.

Erakunde onuradunak aurreko paragrafoan aipatutako baliabideak lortu dituela jakinarazi beharko du. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolanahi ere, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14.d) artikuluan ezarritakoaren arabera jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu aurretik.

Jarduerak, dirulaguntza honekin finantzatzeaz gain, funts propioekin edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuekin finantzatu badira, justifikazioan egiaztatu beharko da funts horien zenbatekoa, jatorria eta erabilera diruz lagundutako jardueretan, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30.4 artikuluen arabera.

Dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango du diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.

9.- Onuradunen betebeharrak:



Azpeitiko Udala

Modu orokorrean, onuradunak dirulaguntzei buruzko azaroaren 27ko 38/2003 Lege Orokorreko 14. artikulua jasotako betebeharrak beteko dituzte, eta edozein kasutan honako hauek:

- Dirulaguntza jasoko duen ikastetxeak konpromisoa hartzen du ikastetxearen instalazio eta zerbitzuak zentzuz modu egokian mantentzeko, herriko ikastetxetan ikasleentzat kalitatezko hezkuntz-eskaintza bermatzeko.

- Dirulaguntza jasoko duen ikastetxeak konpromisoa hartzen du ikastetxearen instalazio eta zerbitzuen efizientzia energetikoa lortzeko behar diren neurriak hartzeko. Udalean aurkeztu behar den memorian efizientziaren inguruan emango diren aurrerapausoak jakinaraziko dira, aurreztuko den gastua zehaztuz.

- Deialdi honen edo dirulaguntzaren emakidan zehazten den edozein obligazio bete ezean, dirulaguntza berraztertutako egingo da, eta behar izanez gero, emaniko zenbateko baliogabetu, murriztu edo itzuli egingo da.

- Ikastetxeak beharrezkoa izango du jasotako laguntzaren oinarri diren gastuengatik Udalak edota Kontu Epaitegiak egin dezakeen kontrola eta segimendua onartzea.

- Laguntzaren oinarri diren dokumentu originalak mantenduko dira, kontuan izanik horiek administrazioaren edo kontu epaitegiaren kontrolpean egon daitezkeela.

- Ikastetxeak beharrezkoa izango du laguntzaren oinarri diren ekintzengatik beste administrazioetatik edo erakundeetatik jaso ditzakeen laguntzak adieraztea jaso bezain pronto.

10.- Laguntzaren itzulketa.

Ikastetxe onuradunak jasotako laguntza eta interesak itzuli egin beharko ditu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen 36. eta 37. artikulua jasotako kasuak ematen badira, eta itzultze prozedura legearen 41 eta 43. artikulua jasotakoa izango da.

Adostasuna adierazteko eta hitzartutakoa behar bezala jasota gera dadin, hitzarmen hau sinatzen dugu ale bikoitzean eta ondorio bakarrerako, idazpuruan aipatutako lekuan eta datan.

11.- Zehapen araubidea

Diruz lagundutako erakundeak diru-laguntzen arloan egin ditzakeen arau-hausteak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen IV. tituluan eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamenduaren IV. tituluan ezarritakoaren arabera mailakatu eta zehatuko dira.

Eta, hitzarmen honetan ezarritakoarekin bat datozela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, jarraian agertzen



Azpeitiko Udala

direnek honelako hiru ale sinatu dituzte, jatorrizkoak, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.

AZPEITIKO UDALAREN IZENEAN Nagore Alkorta Elorza 72471832M NAGORE ALCORTA (R: P2001900F) Firmado digitalmente por 72471832M NAGORE ALCORTA (R: P2001900F) Fecha: 2022.03.08 12:42:08 +01'00'	IRAURGI IKASTETXEAREN IZENEAN Francisco Javier Palmero Chao
---	--